Ezkatak

Leire Bilbao

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2006 Leire Bilbao
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2006ko martxoa
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Alferrikakoa da poema. Badakizu.
Gaur inor ez da ezinezkora dedikatzen.
JEAN-MICHEL MAULPOIX

Ez diren gauzak ere badira.
Bizitza, ez diren gauzez ere osatzen delako.
JOSEBA SARRIONANDIA

BURUA KENTZEN

Badira
emakume azalak
ezkata usaina baino itsaskorragoak
Badira
barrua nola hustu jakiteke
urdailera zuzenean doazen esku emeak
Badira
amantalean batzen diren odolak
Badira
senarraren begirada duten arrainak
Badira
arnasestuz erauzten diren zakatzak
Badira
olatuen dardara duten gorputzak
Badira
maitale desleialarekin bezala
itsasoarekin oheratzen direnak
Badira
arrainei beraiena bailitz burua kentzen dieten

emakumeak

—1—

EGUNERO

Zu bezala neu ere egunero desegiten naiz
kaletiarren hondarrezko begiradak lez
bihurgune bakoitzeko.

Ez hasi jausitako zatiak biltzen,
beirontziaren eitea besterik ez dute hartuko.
Ez hasi atzera burua jiratzen
zomorroak farolera lez, orduak ezin inguraturik
nabil.

Zu bezala neu ere egunero desegiten naizelako
garbitzen diot aurpegia goizari.
Oraindik ez dut kenketak egiten ikasi,
ikarak ikaratzen nau.

...hutsaren arrazoia hobesten dut
arrazoi hutsik ezean...
neu ere zu bezala desegiten naizenero.

INBOLUZIOA

Nola ezagutu naiteke gaur
atzo ezezagutu nintzena?
FERNANDO PESSOA

Tok-tok neu naiz
azalari buelta eman eta neure zainetara sartu nahi duena

Tok-tok zabal zaitezte zainok
neure odoletan igeri egin
birikak eta bularrak iruntzitara ikusi
eta arnasestuan dabilen gerezi bihotza ahora dezadan

Tok-tok neu naiz
ehundutako azalaz erantzi eta neurez busti nahi duena
umetokian kuzkurtuta lokartu nahi duena
neure barne hormak laztandu nahi dituena
ikusmira nadin oinetatik kopetaraino

Tok-tok neu naiz
begiak estali eta mihia irentsi eta
burezurra eskuetan hartu nahi duena

Tok-tok neu naiz
utzidazu nigan sartzen
ezagutarazi nadin
besterik ez dut nahi

EGONARRIA

Ez eskatu ispiluak bezain leiala izan nadin
ezin bazara ikusi zure aurrean,
ezin badidazu barrura so egin
zabalik etsi den leiho batetik bezala.

Ez naiz sugelandarea arrakala artean,
nagoen lekuan irauten erakutsi didate.

Egonarriz eramaten ditut egunak,
aitak emandako etxeari eutsiz
etsi naiz oharkabean.

Ez dakit bestearen minaz nireaz ez bada.
Ikusten dudan bezala diotsut,
ez eskatu ispiluak bezain leiala izan nadin,
ez naiz mugituko
hatsak agintzen didan heinean.

Nagoen lekuan irauten erakutsi didate.

BUIA BI

Buia bi dira
zure kresal begiak
itsasoaren erdian
lur ertzari so

AZUKRE TTANTTA

Azukre ttantta bat mingainean
besterik ez dizut eskatzen,
ez nadin jan ispiluak bezala ertzetatik
ikusi zutenaz gozatu barik.

Azukre ttantta bat mingainean
lurmendu dakidan elurra haragian,
ez nadin hautsi behelaino izoztua bezala
zoruan mila zatitan.

Azukre ttantta bat mingainean
euria gozo miazka dezadan.
Goza nadin,
goza zaitzadan.

EDER NERITZUN

Jende errepikatu larregi dago
esaten zenidan.
Farolak, teilatuak eta eskailerak bezala
jende errepikatu larregi...

Hiltzeko baino nekatuago dagoen
zakurraren antzera oinez doazenak,
ikusezin bihurtzeraino
ez ikusia egiten dutenak.
Jende errepikatu larregi.

Begiratzeko astia hartu behar da
esaten zenidan,
elkar begiratzeko astia.

Eder neritzun horrek,
zenbat arrazoi zenuen.

KLISKADAK

Herentzian jaso ditudan oinokin
ibili gura zintuzket
ez bazaizkit urruti joaten
ez badidazu pausoa lapurtzen
hurreratzen naizenero

Herentzian jaso ditudan eskuokin
haztakatu nahi zintuzket
dunak sortu zure azalean
oasiak bilatu zure lehorrean

Herentzian jaso ditudan begiokin
ez dut zure iragana ikusten
geroa irakurri nahi nizuke ninietan
baina hodeituak dituzu
gautzen doaz kliskada bakoitzeko

Herentzian jaso ditudan herentzia guztiokin
nire begietan itxuraldatzen zara
zure begietako hodeien antzera

ARRAINAK

Zure esku ahurreko errekan
igerian aritu nintzen behin,
zure esku ahurreko arrainak bezala ur azalean
lotan zeundela izan zen.
Amu galderekin harrapatu nahi izan nituen
erreka azaleko arrainok,
itaun egin nien zure marinel garaiez,
baina ez zidaten ezkata laztanik egin nahi izan,
ihes egin zidaten zure kresal begiek bezala.
Zure esku ahurreko urpean
birikak estutu zitzaizkidanean baino
ez nintzen konturatu
meandro gehiegi dauzkala egiak
itsasoa deritzon ohe kulunkari horretara
ailegatu aurretik.

ARGI ILUNAK

Ez dakit ilun argitu dizudan edo argiegi ilundu,
gauaren irribarre beltzean sartu garelako
isiltasunaren isil hotsa entzuten denean
zure irribarrearen gau beltzean.

Ez dakit ilun argitu dizudan edo argiegi ilundu,
nahi ezinak diren gauzen ezin nahia duzulako,
eguzkia laranja heldugabe hori
agertu delako zure egunsentietan.

Ez dakit ilun argitu dizudan edo argiegi ilundu,
galdutako gauzen itzuleran egon arren
bizimina dakarren minbizia bezala
poztu didazulako goiza,
goiztu didazulako poza.

Ez dakit ilun argitu didazun edo argiegi ilundu,
egia gehiegi dituelako argiak ilun.

EZER BARIK

Ez daukat ezer, ez naukat
Ez daukazu ezer, ez zauzkazu
Hartu ahal nauzu, har zaitzaket
Ezer barik jarrai dezagun

EULIAK

Erruduntasunaren zingiran
ito nituen irritsez busti gura dut lepoa,
debekatutako laztanekin.
Pausa daitezela haragian euli odolzaleak,
bizirik senti nadin eta goza dezadan
kontzientziaren ziztada lizunaz.

Erruduntasunaren zingiretan
ito nituen irritsez busti gura dut,
azal azpiko damuaren zama kanporatu,
nire haragia agerian utzi.
Ez daitezen euliak izan zure odola
nirera ekartzeaz arduratuko diren bakarrak.

URA ITURRIAN BEHERA

Bizi garen
alde honetan
erloju-orratzen aldera
biratzen joaten da ura
iturrian behera.
Bizi zaren
alde horretan
beste aldera.

Horregatik
azken tantak
erortzen utzi aurretik
itxi nahi izan dut iturria,
ez gaitezen bakoitza
bere aldera
jiratzen joan.

Ontziak harraskan
geratu dira
eta gaur ez didazu
oheratu aurretik
baso bete ur ekarri.

Iturri bat zabalik
entzuten dudanero
esan, erantzuten diot.

LOAREN AIHENA

Loaren erresumina daukat
eta hego haizea izterren artetik putz egiten
neu osorik isuri nahi banindu legez.
Aihenak ez itxaroteko esaten dit,
udare helduak bezala eroriko garela...
ez ditugula usteak baino irabaziko
bien bitartean.

Bien bitartean,
loaren erresumina daukat
eta hego haizea izterren artetik putz egiten.
Ez dut alferrik gainez egingo.

Arriskatzen duguna balio dugu,
askoz gehiago ez.

Askoz gehiago ez eta hego haizea.
Euskarri baten bila nabil
bion bitartean.

ORRATZAREN ZULOA

Ez nazazu orratzaren zulotik beha
haria noiz hautsiko,
ez naiz oraindik nirekin ohitu
udako zaparradekin bezala.

Esku korapilatu bat luzatuko dizut,
ileen antzera erortzen diren galderak.
Ez eskatu zorrak maitatzeko,
ez daukat ama bihotzik.

Ez alferrik orratzaren zulotik beha
haria noiz hautsiko.
Atzeratuta nekartzan beldurrak
batu zaizkit, besterik ez.

Aulki utzi berriaren beroa
oparitu ahal dizut, otzara bete berba.
Ez eskatu matazak askatzeko,
ez daukat ama bihotzik.

Ez nazazu orratzaren zulotik beha birikak noiz josiko.

Ez nuke nitaz ohitu nahi.

BETAZALAK

Arima batzuetan izaten da.
Inork ez dauka
etenik gabe eta betirako.
WISLAWA SZYMBORSKA

Zabaldu dituzu begiak,
itzartu berri denaren usaina daukazu,
lo egin duenaren zaporea.
Zarratu dituzu begiak,
gezurrak jauzika ari zaizkizu betazaletan,
eta nik denak sinetsi nahi.

Zarratu dituzu begiak,
isiltzen denaren betazaletan
irakurtzen ahal delako gordekoa,
nola hilotzei begiak zarratzen dizkiegunean
hildakoen betazaletan irakurtzen ahal den
esateko zutena, esan gabe laga dutena.

Lo egin duenaren usaina daukazu,
itzartu berri denaren zaporea,

jaioberri bat dirudizu.
Gezurrak sinetsi gura dizkizut,
ume batek egia zaharrak
deskubritzen dituen moduan.

GALTZAILEAREN ARRAZOIA

Galtzen ari nauzu, oldoztu didazu.
Gal zaitzakedala dakidalako ez zaitut galdu nahi,
ez zaitzakedala galdu ustez gero galdua zintuzket.

Galtzen ari nauzu, oldoztu didazu,
zure galeretan galduko ez banintz bezala.
Biok galdu dugu arrazoia,
eta arrazoi galdu bat da
geratu zaiguna.

EURITAN

Autobuseko kristalean
utziko dizut mezu umel bat
atertutakoan irakur dezazun

ZAILTASUN SINPLE BAT

Begiak ikusten ditut,
barruko gauzei kanpotik begira.
JOHN BERGER

Bizitza zailtasun sinple bat baino ez da
zure begien zulora erori nintzenetik,
eta ez dakit nola irentsi gerezi malko hauek
zure ninietan itzulinguruka nabilen artean.

Talaia honetatik zer dakusazun ezberdin
jakin nahi nuen, nitaz aparte zer dabilen
zure begi zuloetan munduaren antzera jiraka.

Kliskada batean irten nintekeen betileon urjauzitik,
baina gatibu hartuta ninduzun betazal itxietan.
Horregatik dakit ez nauzula gehiago
naizen bezala ikusiko.

Alfonbra azpian ezkutatu ditut galderak
eta buelta eman diot giltzari

munduak bere buruari ematen dion bitartean.

—2—

EZINEN OREKAN

Hazten joan diren minekin hazi gara,
harri gaineko lo beroarekin,
ezinen orekan.

Ezinekin jostatzea
ez da ezin jostatzea.

Lekuz aldatzeko ez bada
ez hartu harria esku artean.
Urrunera jaurtitzeko ez bada
ez erauzi sortu zen lurretik.

Zinez diotsut,
ezinez izan gara.

Edonora goazela ere
usain bera daramagu azal azpian.
Lur heze usaina,
amaren usaina bezala,
edonora goazela ere
azalaren azpian.

Ez da erraz ezabatuko.
Nork ez du gorrotatu inoiz
gehien maitatu duena.
Nork ez du gorrotatu inoiz
azal azpiko lur heze usaina.

Hazten joan diren minekin hazi gara,
harri gaineko lo beroarekin,
ezinen orekan.

GORPUTZAREN HONDARRAK

Erortzen doa
azala jausten denean bezala
hondartzak betetzen diren moduan
aleka,
jausitako zatiak direlako hondartzak
itzalen antzekoak
hareazko gorputzen isla.

Gorputzak,
eroritako aleak batzen dituzten hondartzak,
harez hare batu direnak azalez azal.
Horrela batzen baitira eroritako gorputzak
bata bestearekin erortzean,
elkarren hondarretan nahasten direnean.

Eta bien bitartean
erortzen doa
azala jausten den moduan
gorputzaren hondarrak batzen dituen
bere itzala.

ILARGIZKO BULARRAK

Heldutako sagar bi odolez puzturik
zuhaitzetik erori ez erori.
Heldutako sagar bat adarrean zintzilik
ilargi uher hori.

Ilgoran askatu egiten da
nire bularren ekialdetik,
gazitzen barne urak,
urdintzen zainetako errekak,
berriro nire mendebaldean itsasoratu
eta zilbor hestea zulatzeko.

Ilgoran, borobil osoan, beti dago
ilargiari kosk egin gura dion norbait,
haginkada txikiz urrituko lukeena,
horzkada bakoitzarekin
sagar bularrak odolustu
eta ilbehera abiarazteko.

ODOLETAN 1

«Odoletan nago» zikindu dut atzamarrekin
ispiluan.
Odoletan nago baina ez naiz emeago sentitzen.
Kalez beterik daude usainak,
kea ari du harripetik.
Sutu egin dira teilatuak,
masail gorritu bat da zerua albotik pasatzean,
orratzetatik tantaka ari dira segundo odolkarak,
lotsaturik erori dira hostoak ukitu orduko.
Odoletan dago oinez naraman lurra ere,
sortu zuen sabeletik isuriz doa
barrunbeek onartu nahi ez didaten jarioa.
Eta ez dakit zergatik ukatu behar dudan
naizena: emakume bat odoletan.

GAUR

Hau gaur da
begiak gehiago zabaldu arren
ikusiko ez duzuna

Hori ni naiz
eskua luzatu arren
sentitzen ez duzuna

ODOLETAN 2

Odolez zikindu ditut atzamar puntak
eta ahora eraman zalantzati.
Nire gorputzak nahi ez duen odol honek
ez du zapore mikatzik.
Min egiten didate titiburuek
ezpain eske baleude bezala.
Ez ditut zureak gura,
ez ditut inorenak gura,
niretzat ondo gordeak dauzkat.

Taupadaka daukat barrua, erantzun eske,
eta esku bat pausatu dut bularrean.
Galdetu didazu zergatik batzuetan zuri baino
hobeto ulertzen diodan lehoi eme bati.
Orain badakizu bularrak taupadaka ditudanean
zergatik ez dizkizudan uzten ukitzeko,
zergatik gordetzen ditudan neuretzako.

EMASABELA

Emasabel guztiak ez dira haurrez husten,
ez dira bizitzarekin bakarrik puzten.
Neurea odolez husten da, uzten bada.

Umetu gura nuke,
bizi mina sumatu,
erdibitu barik erditu,
hats epela ahozulotik putz egiten sentitu.

Odolez husten naiz, uzten banaiz
errekasto bat taupadaka bezala.

Ekarrizu esku bat eta sentitu
nire sabeleko harriak odoletan,
kazkabarra bezala ostikoka,
bizirik nagoela esaten.

GERUZA AZPIAN

Min egiten dio
ederrak,
beldur dio
lor dezakeena galtzeari.
Azal azpian
estali ditu
ezinak.

Ez ditu eskuak zabalduko
hodei tarratak hartzeko
ez-lekuetatik erortzean.
Desagertzen utziko ditu
lur azpian
lurrak irents ditzan,
bere ehunka geruzak
zeharka ditzaten
ezinezko hodei zatiok.

Mintzeari
beldur dionetik
hautsiak ditu
barne mintzak.

Azala laztu eta
harri oskolez
estali zen,
ezerk
arraildu ez zezan,
bere osoan
irauli ez zedin.

Harik eta berriro
ezinak
azaleratu zaizkion arte.

UR HANDIAK

Aita ur handietan zegoela
apurtu zituen amak urak.
Horregatik mareen arabera
hurreratzen gara
eguzkipean lehorrera.

Aita ur handitan zegoela
egin nuen lehen aldiz negar
aitagatik, amagatik.
Horregatik mareen arabera
hurreratzen naiz
ur hautsietara.

BEHAR DU

Behar du beste modu bat izan
salmahaietako arropa bezala ez amaitzeko,
azala erortzen uzteko
gogoak ematen duenean.

Behar du beste modu bat izan
erantzunak irribarre huts ez izateko,
betileak biluzten uzteko
gorputzak astintzen duenean.

Behar du beste modu bat izan
formak hautsiz mantentzeko,
eskua sendo oratzeko
bidea norberaganantz denean.

Behar du beste modu bat izan
aieru hutsez ez jokatzeko,
aske lotzeko,
emantzat emandakoa desemateko.

Behar du beste modu bat izan.

Beste modu bat.

Beste bat.

INURRI GOSEA

Eman dezagun arrastia jausi zaiola sorbaldara
eta oraindik ez dizkiotela egunonak eman,
balkoira hurreratzen dela
eskudelak eusten dion bitartean.
Eman dezagun jendea dagoela behean,
inurri zelai bat, eta berak ere
inurri begiekin begiratzen diela
geldi, hodei beltzak ez bezala.
Eman dezagun ez dela domeka,
ez duela euria ari edo ari duela,
behera begiratzen duela berriz
eskudelari gero eta lotuago.
Eman dezagun hasperen egiten duela
begiak igurtzarazten dizkiola
eguneko lehen asperdurak,
kalean doan inurritzari begira
bat-batean ohartu dela
gose dauzkala sabeleko inurriak.
Eman dezagun gaur ez duela irentsi
bere burua irensteko desioak.

BEGIRADAK

Zeharkatu nauten begiradetatik bati,
bati baino ez, galdegin gura nioke
ezer aurkitu al duen nire hezurren barruan,
trabatu erantzunik eztarriaren bihurgunean,
kateatu maitasunik saihetsen izkina batean,
bahitu umezurtzik sabelean,
ba al dudan ahantzitako hasperenik biriketan,
ase gabeko irrikarik gibelean,
goroldiorik zainetan,
oztoporik gabe zeharkatu nauen,
kausitu al duen bere burua nire odolean,
atsedenik hartuko lukeen nire haragian.

Zeharkatu nauten milaka begiradetatik bati,
bati baino ez, galdegin gura nioke
utziko al didan bera zeharkatzen.

KOLOREZ

Ilunabar kolorez margotzen ditu behatzak neguan
eta ez du argirik amatatzen lotarako.
Haizeak biluz dezan lagatzen da
lur arrearekin berdintzeko.

Kolorezko eta kolore gabeko jendearekin
partekatzen du mundua,
ez du malkorik alferrik isurtzen
kolorez ez husteko,
haizeak biluz dezanean ikusteko.

Behatzak ilunabarrez margotzen ditu neguan,
belar kolorez udagoienean,
eta ez du argirik amatatzen lotarako.
Begiak ixtean izar zuriak etortzen zaizkio gau
ilunera
eta haizeak biluz dezan lagatzen da,
izararik gabe, lur arrearekin berdintzeko.

Behatzak ilunabarrez neguan,
belarrez udagoienean,

argitan loak hartuta
izarrak datozkio begi itxietara.

Kolorerik gabe geratzen naizenean

utziko dut haizeak jantzi nazan.

—3—

HORTIK HASI

Umeok oharkabean nahita
helduok nahi gabe ohartuta
bustitzen ditugu mudak.

Ahal bagenitu aditz berriak sortu
denbora berri baterako
mailatutako madariak bezala ez amaitzeko.

Hortik hasi behar genuke,
ahal balitz litzatekeenetik.
Ordea, ez daitekeenetik hasten gara.

Ezinaren ederra
ederraren ezina baino ederrago bada
teilape bakoitzean
muda berri bat topatzeko ilusioa behar genuke.

Menturaz
hortik hasi behar genuke.

IRENE

Bizitza aldatzeaz amesten zuen
eta arratsalde batean
altzariak lekuz aldatzeaz
konformatu zen.
JEAN-MICHEL MAULPOIX

Arropa bustiarekin batera
soketan eskegi da ilunabarra.
Irenek bere bizitzaz hitz egiten du
dagoeneko gertatua balego bezala.
Betseinetan beldur pausatua antzematen zaio,
eta lokarriekin lotu behar du eguna
oinetara ihes egin ez diezaion.

Goizari mudak aldatzean
leku seguru batean gordeko du atsekabea,
kafea erreko zaio kale nekatuei begira.
Kazkabarra legez erortzen diren orduetan
arrangurak ez dio lekurik kentzen.

Ireneri ez dio min egiten inoren minak.
Poltsa beteekin bueltatzen da etxera.
Bi sagar eta kafea.

Telebistarekin igarotzen dituen
arratsaldeetan arnasten du
inoren nahigabeak ere ez duela asetzen,
badela dagoeneko bizitzaz, berak bezala,
gertatua balitz bezala hitz egiten duen jendea.

GEREZIONDOAK LORETAN

Bere haur negarra isilarazteko
bueltatu nahi duela herrira esan dit,
maiatzak ertza jo aurretik
gereziondoak loretan ikusteko.

Denborarekin kaleak eta iritziak
okertzen joan zaizkiola,
arnasa ez duela jada
utzi zuen lekuan aurkitzen.

Bakardadea neguko kaleetan
beroki lodi batekin ibiltzea dela,
badirela atea zabaltzean
inoiz ezer sartzen ez den etxeak,
kanpoko hotza ez bada.

Egunak hausten zaizkiola eskuetan,
hil berriak bezala prestatzen dela gauero,
lotsa ematen diola ohean biluzik hiltzeak.

Maiatzak ertza jo du,
eguzkiak berotu harriak sartu ditu poltsikoan.
Bere haur negarra isilarazteko
bueltatu nahi duela herrira esan dit.

HARRIAK HARRIARI

Ez naiz kortxeletik harrizko soinekoa erantzita
jaitsiko,
ez dut oihukatuko hemen naiz,
begiak zabalduko dizkizut ondotik pasaeran
barrura gonbidatuz.

Ordu hotzak dira kalean
zure eskuen sabelean hartu nahiko baninduzu,
baina ez itxaron nire lotsak agurtzerik,
hego haizea harro dabil.

Laranja usaina dauka ilunabarrak,
hiria ezkonberritan dago sasoi honetan,
behegainean oinutsik
galtzadarriak haur minetan.

Jaurtidazu hitzarri bat
gordetzea merezi ez dizuna,
ezardazu beroa magalean,
higa nazazu haizeak egin aurretik.

MUDATZEN

Bere umezaroaz erantzi zenetik dago mudatua.
Azal geruza bat falta zaiola esaten du berak.
Kale bazterren batean utziko zuen
kamiseta zaharrak uzten diren lez
korapilo bat eginda.

Oraindik azkura ematen diote oroiminek,
zaurian hazka egitearen
plazerarekin askiesten da.

Azal geruza bat gutxiago daukala
esaten du berak urtaro bakoitzean.
Non biluztuko ote da hain azkar.

ZAPATAK

Egunari mudak aldatu ostean
kale nekatuetara joan zaizkit oinak
eta urak hartu balu bezala zimurtu da gaua.

Zure izeba ikusi dut
banketxeko ilaran,
inoren zapatak janztea moduan izan da.

Ametsek agintzen ziguten lehen,
ez amesteko agintzen digute orain.
Jakingo banu non sartu zaren,
aterkiak bezala zabaltzen zenituen begiokin.

Badakizu,
nagoen lekuan irauten erakutsi zidaten,
baina ez dakit aurkituko nauzun.

Esan, ez garela udare helduak bezala eroriko.
Esan, gauak ez duela zimurrik
eskutik lotuta askatuko ginela uste genuenean
bezala.

Zelaiez beterik genituen zapatak
kale nekatuetatik doaz.
Gaur zure izeba ikusi dut banketxeko ilaran
aterkiak bezala zabaltzen zenituen begiokin.
Inoren zapatak janztea moduan izan da.

OINAK

Etxerako bidean dago ia beti,
kalean norbait aurkitzen duenean.
ELFRIEDE JELINEK

Ibiltzeko moduagatik jakin liteke
bere buruarekin gustura doan bat.
Ibiltzeko moduagatik
zoriontsu izateko bokazio faltan da hori,
takoiak kentzean hutsean geratzen da hura,
ez du lurra sentitzen oinutsik datorren horrek.

Zu ere ibiltzeko moduagatik ezagutzen zaitut lepoz,
galderak irakurtzen dizkizut oinatzetan,
eta badakit ez zarela nigana etortzen ausartuko
bidean adieraziko zenidakeelako esan beharrekoa,
zure eta nire arteko bidean artez datorrena
aurrean paratu eta ez lidakeelako aitortuko
entzun nahi dudana, zure oin hotsek bezala
zure oin hotzek behin aitortu zidatena.

AZAZKALAK

Azazkalak azazkalekin garbitzen eta
odola listuarekin xukatzen dituen bezala
baleki berez sendatzen,
ez luke bilatuko moztutako pinuaren isiltasunik
ez eta asfaltoko belarraren bakardaderik.

Eta ez lioke txakur emeen odol arrastoari segituko
espaloian bere buruarekin estropezu egingo balu.
Hatzei so egingo lieke, zerura beharrean.

Azazkalak azazkalekin garbitzen eta
odola listuarekin xukatzen dituen bezala
baleki berez sendatzen,
noizbehinka aurkitzen dena bezala poztuko litzateke
bere buruari errezatu beharrik gabe
ematen duen arrastiri bakoitzeko.

Eta begiak jasoko lituzke lurretik
bost zentimoko moneta bat bezala,
topatu zintuen egunean legez
poz borobil bat atzamarretan haztakatuz.

ENGAINUA

Nahi du eta ez du nahi.
Arima bahitu diote ezustean
gerrako gurasoek seme-alabei egia bezala,
eta errua deklaratu du errudun bakar.

Nahi du eta ez du nahi.
Altzariekin estropezuka doa
zakur zaharrak bezain nekatuta
inork lanparak pizten ez dituen bitartean.

Nahi du eta ez du nahi
urrunetik hurbildu, hurbilekoa urrundu,
zer sinetsi behar duen jakin
ipuinak amaitzen direnean.

Nahi du eta ez du nahi
etxe itxiak bezala egurastu
edo irunean iraun
bere amaraunaren amarruan.

ERREPIDEAN

Errepidera irtendako piztia izutua zirudien.
Maleta bat zuen aberri.
Zainetan ur lodia zeramala esan zidan.
Zer besterik da odola?

Oraindik ez dakit
zergatik geratu zen autoa bere aurrean.
Ondoko eserlekua eskaini nion eta
nora galdetzeko betarik ez zidan eman.

«Zu eta bion artean
18 urteko aldea dago» esan nezake,
baina ez dago segundo erdi bat ere.
«Inoiz ez da goiz bizitzen hasteko. Badakizu?
Nire alabak zure antza izan behar du».

Neuk jakingo nuela non gelditu
egin zidan arrapostu;
bidean zegoela, bidera joateko;
autoa gelditzea besterik ez nuela
etorri bezala joan zedin.

Berbetan jarraitu zuen nire isiltasunean.

Semaforoa gorri jarritakoan zabaldu zuen atea.

ZEBRABIDEAN

Alferrikako gauzekin ez da jolasten,
alferrikako gauzak ez dira beroak,
hildako haurrari emandako bularra bezala.
Hala ere hesitu egiten ditugu lorategiak,
debekatua dago belarra zapaltzea,
eta ama batek negar egiten du.
Zebrabidean zain egon beharraz haserretzen gara,
hotz da kalean, eta hotzagoak dira
amaren esnez bustitako horma zuriak.
Zebrabidea gurutzatu dugu,
tupust egin dugun ezezagun horrek
gaur zer galdu duen ez dakigu.
Berdin zaigu. Berandu goaz.
Lanegun txarra izan dugulako
negargurari eutsi nahi genioke,
baina ama hari bularretatik bezala
nahi gabe jausi dira malkoak,
alfer-alferrik, alkandora bustiz.

HIRUGARREN PISUTIK

Orduan ikusi nuen berriro:
bizkarrean zeramatzan eskuak,
eta erortzen utzitako minutuak
hanka azpian karraskatzen zitzaizkiola
egiten zuen oinez.

Espaloietan bere bizitzari falta zitzaizkion
puzzle zatien bila zebilela zirudien arren,
ez zen eroritako minutuen bila makurtzen.
Munduak bere begien inguruan
jarraitzen zuen biraka.

Zerua paper zimurtuz bete zen arte
jarraitu nion pausoari
inora ez doanaren mugimenduarekin.

Bizilagunek leihoak ixteaz batera
bakarrik gelditu ziren,
bakardadea eta bera.

Orduan ikusi nuen
hirugarren pisukoa,
eroritako nire minutuei begira.

AULKI HUTSAK

Bazituen dozena erdi aulki,
egongelakoak kontatu barik.

Egunero bat hautatzen zuen
bere gorputzeko pisua
norbaiten gainean bezala esertzeko.

Atseden txikiak hartzearren
besaulkietan ere jesartzen zen
besoarekin inguratuz jarlekuaren lepoa.

Igandeetan, sofa erdian, kuxinak alde banatan,
ez zituen hankak gurutzatzen.
Norbaitekin balego legez jokatzen zuen beti.

Sukaldeko lurra garbitzen zuenero
mahai gainera igotzen zituen egonarriz
lanbasarekin zorua bustiz.

Aulki hutsek ez zioten ezkaratza betetzen.

ORAINDIK EZ

Zelaiak orrazten diren moduan
pasa dizkio atzamarrak burutik,
belaunak urratzen zituen ume hura gogoan.

Behin amona bihurtu zuen semeari begira dago,
izarak bezala eskuetako zimurrak
nola tolesten zaizkion begira,
isilago ibiltzeko esaten ziola gomutatuz
orain ohean geldi dagoen etxeko
patioan etengabe korrika aritzen zen haur hari.

Orain, isilegi dagoen semeari
zelaiak orrazten diren moduan
pasa dizkio atzamarrak burutik.
Esateko zerbait,
esateko aurtengo gabon kantak prest dituela,
eskatzeko domeketan egiten duen sagar pastela,
esateko ez duela semea hiltzen ikusiko.
Oraindik ez, oraindik ez.

ITSASORA

Mundutik gaixotasuna besterik ez daroazu,
itsasoaren pisua begietan,
eta orain aspaldi harrapatu zenuen
uretako maskor haren eitea esku ahurrean.

Joan ziren arrantza egunak,
galdu ziren sareak eta lagunak,
lehorrean sikatu zitzaizun azala.

Eta hil zorian zeundela
itsasora eramateko eskatu zenidan,
jaiotzen ikusi zintuen kalearen izena zeukan
egurrezko zure bafore txikian.

Hainbeste urdin, zertarako?

Karelari eusteari utzi zenion
eta bakarrik egin nuen arraun

etxera bidean.

—4—

EZ DUT NAHI

Ez dut lurperatuko nauen aberririk nahi,
izan nahi genuena ahora ekarriko didanik.

Ez dut nekatuko nauen maitasunik nahi,
lepora igoko zaidanik mendeku hartzeko ez bada.

Ez dut babestuko nauen amarik nahi,
alboan izango ez badut denbora badoanean.

Ez aberri, ez maitasun, ez amarik
ez badut, nora itzuliko naiz?

POSPOLOA

Pospolo bizitza daramazu
pospolo heriotza baten esperoan

Zuk zerorrek zeniostan
hiltzea baino latzagoa dela
ez jakitea zertarako bizi garen

Eta atzamar puntak erre dizkidazu
nahita edo nahi gabe
zeure burua erre duzunean

EZ DAUKAT

Ez daukat federik,
ez onik ez txarrik.
Denbora arrimatu bitartean,
presak aginduta sinetsiko dut,
zizarea sagar puztuan bezala babestuko,
horzkada batekin ahoratuko zapore guztiak.

Ez daukat sinesmenik,
ez onik ez txarrik,
sagar azala bezala biluzteko,
inoren gosea jateko,
plater hutsa mingainarekin betetzeko,
besterik ezean.

Ez daukat lekziorik,
ez onik ez txarrik
inori mokadutzat emateko,
Ez asmorik
egunak ogi apurrak lez atzamarrekin batzeko,
bihotza jan dioten sagar-mutxikina lez
paradisuko zakarrontzian amaitzeko.

ATZERRITARRA

Atzerritar bat dabilkit
neure baitako herrian
itsaso hilak bezain hotzak diren oinekin
birikak zeharkatzen.

Esan, zer egin behar dut
errealitate hau ez bada nirea,
min banaiz,
ni banaiz
loa galtzen duena legez
bere ametsetan arakatzen ari dena.

Zer egingo dut ba,
atzerritar bat badabilkit
neure baitako herrian,
harri artean babesten banaiz
zu eta beste guztien aurrean.

Ez da nirea erru guztia,
guztia errua bada.
Zure begiratzeko era da
salatzen nauena.

GEZURRETAN

Neure buruari gezurretan harrapatu naiz
isiltasuna zurrungaka entzun ostean
salatariarekin haserretuz,
gezurtiarekin beharrean.

Aulki hotz batean jesar nadin
eskaileretan atzera erortzen den horrekin;
esan, ez dela posible
berriz ez nadila engaina
neure buruari gezurretan.

Ni izan nintzen hemen noana
ispiluetan salatzen,
korridoreetan izutzen,
neuretik itzultzen naizena.

Aulki hotz batean jesar nadin,
bero aurki dezadan bueltan.
Neure gezurretan eserita
arineketan ihes egin ez dezadan.

BESTERIK EZEAN

Izango dira egunak besterik gabe amaituko direnak,
besterik ezean emandako berbak izango dira.
Izango dira hozkailuan iraungiko diren erantzunak.
Aukera egin beharrak beti dauka kostua.

Izango dira uneak hormak bezala pilatzen direnak,
eman gabeko agurrak izango dira.
Izango dira besterik ezean gordetako nahiak.
Ez egitea ere zigortzen da.

Izango dira izkinak leku oro errepikatzen direnak,
inoiz etorriko ez diren garaiak ere izango dira.
Izango dira ezin hautatu ditugun moduak.
Usoek harriak jaten dituzte tarteka.

BADIRUDI

Badirudi azalore bat zeruan
Badirudi hutsa hotzean
Badirudi izotz pista bere begietan
Badirudi ispilu bat ertzetan
denborak haginka egin diona

Badirudi katebegiak bizkarrean gora
Badirudi txotxongiloak lainopean
Badirudi puzzle piezak espaloietan
Badirudi denbora
ispilu askotan begiratzen dena

Badirudi koma bat estratan galdua
Badirudi galdera ikur bat eskaileretan behera
Badirudi ez dela ezer. Badirudi dena dela
ezerez horretan guztian

Badirudi esaldi erori bat
ulertzeko asmo askorekin
Badirudi asmo erori asko
Badirudi